

Espainiako gizarte segurantzaren finantzaketa arazoei aurre egiteko alternatibak (Aurrikuspen sistema pribatuen erreforma)

Joxe Mari AIZEGA ZUBILLAGA

Aholkulari fiskala. Finantza Zuzenbideko irakasle laguna
Euskal Herriko Unibertsitatea. Zuzenbide Fakultatea.
Manuel de Lardizabal pasealekua, 2
20009 Donostia

BIBLID [1137-1951 (1997), 1; 81-88]

azkenaldi honetan, orain arte Gizarte Segurantzak bermatu izan duen pentsio sistema publikoaren bideragarritasuna eztabaidatzea ohitura bat bihurtu da. Eztabaida horretan sartu gabe, gobernu eta eragile sozialak ados daude, pentsio sistema publikoa aurrikuspen sistema pribatuekin osatzeak ondorio onuragarriak izan ditzakeela onartzerakoan. Helburu hori kontutan izanik, eta Toledoko Hitzarmenean jasotakoari jarraiki, beharrezkoa da giza-aurrikuspen sistema pribatuaren erreforma juridiko sakon bat. Erreforma horretan zeresan garrantzitsu bat izango du aurrikuspen pribatuari esleitzen zaion fiskalitateak.

Za discusión sobre la viabilidad del sistema público de pensiones se repite frecuentemente en los últimos tiempos. No obstante, sin pretender entrar en la discusión, la posibilidad de que el sistema público de pensiones sea complementado por sistemas de previsión privados, puede ser fundamental para la viabilidad del propio sistema público. Asimismo, en desarrollo del Pacto de Toledo, es necesario proceder a una reforma de los sistemas de previsión social complementarios, en la cual la fiscalidad juega un papel principal.

Za discussion sur la viabilité du système public de pensions se répète fréquemment dernièrement. Néanmoins, sans prétendre entrer dans une polémique, la possibilité que le système public de pensions soit complété par des systèmes de prévision privés, peut être fondamentale pour la viabilité du système public lui-même. Ainsi, comme développement du Pacte de Toledo, il est nécessaire de procéder à une réforme des systèmes de prévision sociale complémentaires, au sein de laquelle la fiscalité joue un rôle principal.

Etorkizunean, lan-bizitza aktiboa amaitu ondoren, baliabide ekonomiko nahiko izateak, egun, hiritarren artean ardura berezia sortzen duen gaia da. Ardura hori, Gizarte Segurantzak dituen finantzaketa-arazoek, eta ondorioz, pentsio publikoen sistemak eduki ditzakeen zailtasunek areagotu egiten dute.

Gizarte Segurantzak ziurtatzen duen prestakuntza-sistemaren bideragarritasuna zalantzan jartzea ohitura bat bihurtu da azken urteotan. Behar bada zalantza hori sortarazteko arrazoi nahikorik badagoelako, egun gizartean sustraiturik dagoen ideia bat da, etorkizunean ez dela egongo pentsioak bermatzeko errekurtsio nahikorik. Eztabaida horretan sartu gabe, garbi dago behintzat, etorkizunari begira, sistemaren egonkortasun eta bideragarritasunak zalantzak sortzen dituela¹.

... lan-bizitza aktiboa amaitu ondoren, baliabide ekonomiko nahiko izateak, egun, hiritarren artean ardura berezia sortzen duen gaia da.

Egoera honen aurrean, "Toledoko Hitzarmenak", hau da, Gizarte Segurantzaren eraberritzeko hartutako akordioak, balizko erreforma batentzat bidea erreztu beharrean, konpromezu politiko mugatu eta zehazgabe bat suposatu du; ziur aski, bai alderdi politikoek eta baita sindikatuak ere, kontutan hartzen dute edozein eraberritze batek suposa dezakeen koste elektoralak.

Pentsio-sistema publiko horren osagarri bezala, azken urteotan, pentsio-sistema pribatuak bultzatu nahi izan dira. Honela, 1987/8 Legea eta 1988/1307 Errege Dekretuek, Pentsio Plan eta Fondoak arautu zituzten. Pentsio Plan hauek, borondatezko aurrikuspen erakunde bezala

definitzen dira, bertatik jasotako prestakuntza pribatuak Gizarte Segurantzaren osagarri izan daitezke, baina ezin dezakete inola ere sistema publikoa ordeztu.

Pentsio Planen izaera osagarri hori Konstituzioko 41. artikuluekin bat dator, bertan aurrikuspen pribatuak, Gizarte Segurantzaren sistema publikoaren prestakuntza osagarriak libreak izango direla, hau da, inor ezingo dela pentsio sistema pribatu bat izatera behartu².

Hala ere, Pentsio Planen araudia onartu zenean, bere arrakastari buruz sortutako usteak, ustel geratu dira. Erantzun eskas hori azaltzeko arrazoi ezberdinak aipatzen dira: orain arte, sistema publikoan izandako konfidantza, ahalmen ekonomikoa, gizarteak aurrikuspen pribatuekiko duen ohitura falta, etab. Arrazoi horiekin batera, onartu beharra dago ere, aurrikuspen pribatua garatzeko emandako araudiak izan duela zeresan garrantzitsu bat, eta ez duela balio izan, beraren onarpenean jarri ziren helburuak lortzeko.

Hori kontutan izanik, zentzuzkoa dirudi, aurreko urteotan izandako esperientziarekin, aurrikuspen pribatuaren arauketaren eraberritze sakon eta oso bat burutzea. Eraberritze horren helburu nagusia Gizarte Segurantzaren aurrikuspen sistema osagarriak bultzatzea da. Helburu hori esanbidez Toledoko Hitzarmenaren 14. oinarrian jasotzen da.

Hitzarmenaren gomendio hori jarraituz, 1995. urte amaieran Diputatuen Kongresuan azpibatzorde bat osatu zen, giza-aurrikuspen sistema alternatiboak aztertzeko. Nahiz eta hauteskondeen poderioz azpibatzordearen lanak eten egin ziren, legealdi berrian, alderdi politikoek adostasunak berriro eratzea ekarri zuen. Azpibatzordeak, haseran behintzat, bere lanak martxoaren 31rako amaitu behar zituen, baina akordio ezak lortu beharreko ondorioak ekainaren bukaera arte atzeratu ditu.

Aurrikuspen sistema pribatuak ez du arrakasta nabarmenik lortu, zenbakiei begiratu.

1. Gai honi buruz aurki daitezkeen bibliografia oso ugaria da, lan berrienen artean aipatu: BAREA, José. "La sostenibilidad financiera de un sistema de reparto de pensiones". *Papeles de Economía Española*, 70. zkia., 1997, 216-225 orr., eta bertan aipatzen den bibliografia.
2. KEko 41. artikulua: "Los poderes públicos mantendrán un régimen jurídico de Seguridad Social para todos los ciudadanos, que garantice la asistencia y prestaciones sociales suficientes ante situaciones de necesidad, especialmente en el caso de desempleo. La asistencia y prestaciones complementarias serán libres".

Egungo egoeraren aurrekinak

Dagoeneko 80. hamarkadan giza-aurrikuspen sistema pribatu bat eraikitzearen beharra aldarrikatu zen, batik bat, krisi ekonomikoak Gizarte Segurantzaren finantzaketan sortzen zituen ondorio ezezkorreatatik. Langabetu kopurua handitzea, gizartea zahartzea, jaiotze tasaren beherakada eta bizitza esperantza luzatzea aipatzen ziren sistema pribatu baten beharraren arrazoi nahiko bezala.

Aldi berean, aurrikuspen sistema pribatu batek, finantza sistemaren indartzea suposa zezakeen. Aurrikuspen pribatu batera egindako ekarpenak, epe luzerako aurrezpen bat diren neurrian, finantza sistemarentzat, eta bera osatzen duten finantza erakundeetat, baliabide egonkor bat suposatzen dute, errekurso horiek urte askotan finantza sistemaren barnean geratuko baitira.

Orain dela hogeitaz urte giza-aurrikuspen sistema pribatuaren alde aipatzen ziren arrazoiak, indar berriturik, eraberritzea defendatzeko erabiltzen dira gaur egun. Aurrikuspen sistema pribatuak ez du arrakasta nabarmenik lortu, zenbakiei begiratuz, 1996. urtean, aurrikuspen sistema pribatuan 6 bilioiko inbertsioak aurki daitezke, aldiz Inbertsio Fondoetan inbertitutakoak 18 bilioi dira. Kopurua hirukoizteak, ardura sortu du azpibatzaordea osatzen duten alderdi politikoen artean.

Ondorioz, giza-aurrikuspen sistema pribatuaren alderdi guztiak hobetu nahi dira, eta horien artean gai fiskalak duen garrantzia kontutan izanik, azpibatzaordearen ahaleginak erregimen fiskal onuragarri bat lortzera bideraturik daude. Fiskalitatea izango baita neurri handi batetan aurrikuspen sistema pribatuen arrakasta baldintzatuko duena.

Giza-aurrikuspen sistema pribatuko erakundeak: bere fiskalitatea

Aurrikuspen sistema pribatuaren helburua da, langileak, jubilaziora iritsi eta langile izateari uzten dionean, Gizarte Segurantzak bermatuko dizkion prestakuntza publikoak beste prestakuntza pribatu batzuekin osatzea. Egundak, helburu hori lortzeko erabil daitezkeen baliabideak hiru dira: aseguruak, pentsio planak eta mutualitateak.

Erakunde bakoitzak ezaugarri ezberdinak ditu, eta ezberdinak dira ere, bata edo bestea hautatzeak ekar ditzakeen ondorio fiskalak. Aldi berean, kontutan eduki behar da, aurrikuspen sistema pribatuak maiz, langilea-enpresa erlazioan kokatzen direla, eta enpresa izango dela hain zuzen

ere, aurrikuspen sistema pribatura, langilearen kontura, bere soldataren gehigarri bezala ekarpenak egindako dituen. Langilearentzat, enpresak aurrikuspen sistema pribatura egindako ekarpenek ezaugarri berezi batzuk dituzte, horiek arautzen ditu aseguru pribatuen ordenakuntza eta ikuskapena arautzen dituen 1995/30 Legeak, non beste gaien artean enpresek izan ditzaketen pentsio-konpromezuen konporatzea arautzen den.

Aipatu erakunde horiek dira:

Pentsio Planak: bere ezaugarrien artean, pentsio planera egindako ekarpenen ukiezintasuna aipa daiteke. Partaideak, planaren ondarearen kuota baten jabe da, baina ezingo du kopuru hori berreskuratu, bere kuota horren berreskuratzea posible egingo duen gertakizuna eman arte (alegia, jubilazioa, alarguntzea edo ezintasuna). Prestakuntzen ukiezintasun hori Euskal Autonomi Erkidegoan ekidin nahi izan da, Borondatezko Giza-Aurrikuspenerako Erakundearen (EPSV) erabilpenaren bitartez. Hauetan, 10 urte igaro ondoren posible da ekarpenak berreskuratzea.

Bestetik, pentsio planetara egindako ekarpenak urtean gehienez ere milioi batekoak izan daitezke.

Tratu fiskalari dagokionez, pentsio planera edo Borondatezko Giza-Aurrikuspenerako Erakunde (EPSV) batera egindako ekarpenak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren oinarri zergagarriaren murriztapena ekarriko dute. Murriztapen horrek muga bat du, honela, murriztuko den kopurua ondorengoetatik txikiena izango da:

1 - 1.000.000 pta.

2 - Laneko, enpresa eta jarduera profesionalen etekin garbien ehuneko 15a.³ (ikus 1. kuadroa)

Oinarri Zergagarria

(urtean jasotako errenta guztiek osatzen dutena)

- Murriztapenak

(Pentsio plan eta mutualitateengatik, besteen artean)

= Oinarri likidagarria

* karga tasa (%)

= Kuota Osoa

(urrengo orrian jarraitzen du)

1. Oinarri zergagarriaren murriztapena

3. Ikus Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Foru Arauak: Gipuzkoan 1991/13 Foru Araua, 71. artikulua, Bizkaian 1991/7 Foru araua, 71. artikulua, Araban 1991/24 Foru Araua, 71. artikulua, Nafarroan 1992/6 Foru Legea, 67. artikulua.

Borondatezko Giza-Aurrikuspenerako Erakundeen kasuan egindako ekarpenek muga horiek gaindituko balituzte, gainditutako kopuruaren ehuneko 10a PFEZaren kuotatik kendu daiteke.

Etorkizunean, ekarpenak berreskuratzen direnean, laneko etekin bezala zergapetuko dira.

Askotan, (aurrerago ikusiko dugun bezala), pentsio planetara ekarpenak, enpresak egiten ditu langileen kontura. Kasu honetan, arestian aipaturiko tratamendu berdina izango lukete, baina ekarpenak enpresak ordaintzen dituzenez, langilearen laneko etekin bezala, laneko gainontzeko etekinei gehitu beharko litzaizkieke.

Aseguru kolektiboak (Sistema alternatibo gisara kalifikatuak): Sistema alternatiboaren kontzeptua 1988/1307 Errege Dekretuaren 70. artikuluan aurrikusten da, horretarako, beharrezkoa da batetik, enpresa-osagarri bat izatea, hau da, enpresa-langile erlazio barnean ematea, eta bestetik, pentsio plan baten gertakizun berdinak estaltzea.

Aseguruen kasuan, ez dago mugarik ekarpenak egiterakoan, ondorioz urtean nahi adina ekarpen egin daitezke.

Aseguruen fiskalitateari dagokionez, egindako ekarpenen ehuneko 10a PFEZaren kuotatik kentzea ahalmentzen da, 50.000 pezetetako mugarekin⁴. (ikus 2. kuadroa)

Kuota Osoa

- Dedukzioak
(besteen arten, aseguru, eta EPSVengatik - murriztu ezin izan den kopuruengatik-)

= Kuota likidoa

- Konturako ordainketak .. (atxikipenak)

=Kuota diferentziala

2. Dedukzioak

Estalitako gertakizuna eman dela eta, etorkizunean ekarpenak berreskuratuko balira, jasotako kopuruak laneko etekin gisa kontsideratuko dira.

Ekarpena enpresak egiten badu, langilearentzat laneko etekin bat izango da, ekarpen hori egiten den ekitaldiaren barnean.

Giza-Aurrikuspen Mutualitateak:

aurrikuspen sistema alternatibo bat izateko aseguru kolektiboentzat galdatzen diren ukanbehar berdinak bete beharko dituzte.

Fiskalki, mutualitate batera egindako ekarpenak PFEZaren oinarri zergagarritik murriztu ahal izango dira, pentsio planentzat aipaturiko muga berarekin (gehienez, milioi bat). Baina murrizgarri izango dira soilik, profesionalak egindako ekarpenak, enpresari indibidualak egindakoak eta besteen kontura lanean ari direnek egindakoak, beti ere mutualitateak sistema alternatibo bezala jarduten badu.

Ezarritako muga maximoa -gehienez milioi bat- gainditzeagatik, oinarri zergagarritik murriztu ezin daitezkeen kopuruak, kuotatik kendu ahal izango dira.

Ikusi ditugun hiru baliabide hauek dira aurrikuspen sistema osagarri bat gauzatzeko erabili daitezkeenak. Kuantitatiboki bi lehenengoek dute garrantzia, 1996an aurrikuspen pribatuak 6 bilioi mugitzen bazituen, horietatik 3,7 aseguruetan inbertiturik daude eta pentsio planek 2,9 bilioi suposatzen dute.

Aurrikuspen sistema pribatua eraberritzea

Hala ere, giza-aurrikuspen sistemen garapenean fiskalitateak duen garrantzia ez da exageratu behar, eraientza fiskala ez baita erakunde bakoitzaren arauketari gehitu beharreko faktore bat baizik. Ondorioz, fiskalitateaz gain beste faktore batzuk ere kontutan hartu behar dira aurrikuspen sistema pribatuaren eraberritzeari buruz hitzegiterakoan, hala nola, erakunde ezberdinen likidezia, finkatutako eskubide eta kopuruaren mugikortasuna, ekarpenen muga kuantitatiboak...

Aldi berean, giza-aurrikuspen sistemen erreforman, aurrezpenari buruz egiten diren beste erreformak izan behar ditu kontutan, aurrikuspen pribatua, epe luzerako eta helburu zehatz batzuetarako den aurrezpen moeta bat besterik ez baita eta zentzu honetan, beharrezkoa da finkatzea, aurrezpenaren fiskalitateak jarraitu behar dituen helburuak, eta honekin batera, giza-aurrikuspen sistemarenak⁵.

4. Ikus P.F.E.Z. aren Foru Arauak:

Gipuzkoan 1991/13 Foru Araua, 78. artikulua,
Bizkaian 1991/7 Foru araua, 78. artikulua,
Arabian 1991/24 Foru Araua, 78. artikulua,
Nafarroan 1992/6 Foru Legea, 74. artikulua.

5. Aurrezpena eta fiskalitatearen arteko erlazioan sakontzeko, ikus: CASTELLANO REAL, Francisco. "La fiscalidad sobre el ahorro: una asignatura pendiente". In: *Papeles de Economía Española*, 70. zkia., 1997, 227-237 orr.

AIZEGA, J.M. Espainiako gizarte segurantzaren finantzaketa arazoei aurre egiteko alternatibak (aurrikuspen sistema pribatuaren erreforma). *Eleria*, 1, 1997, 81-88



12. irudia

Helburu horien artean aipatzen dira:

1. Erreformak izan beharreko osotasuna, aurrezpena bideratzen duten erakunde guztiak barne hartu behar baititu.
2. Erakunde ezberdinen arteko neutralitate fiskala, hau da, erakunde batek ez dezala izan, haseran behintzat, besteekiko abantailik.
3. Aurrezpenaren aldekoa izatea, eta batik bat, epe luzerako aurrezpena bultzatzea. Hala ere, arauketa onuragarriago bat ematerakoan, giza-aurrikuspen sistemek dituzten aurrikuspenezko edo arriskuaren prebentziozko helburuak, arauketa fiskalak derrigor kontutan eduki beharko ditu. Ez baitira berdinak inola ere, helburu espekulatiboa duen aurrezpena eta aurrikuspen helburua duena.
4. Eraberritzearen beharra eta urgentzia, eragile sozial eta ekonomiko gehienek sentitzen dutena. Erreformak sistematikoa izan beharko du, aurrikuspen sistema publiko eta pribatuen arteko osagarritasuna bultzatuaz.
5. Azkenik, aurrezpenaren fiskalitatearen erreformak helburu ekonomiko-publikoak eduki

behar ditu kontutan. Ez dago ikusi besterik Gizarte Segurantzak Estatu espainiarraren finantzaketa eta aurrekontu mailan sortzen duen egonezina. Azken finean, aseguruaren, pentsio planen eta mutualitateen etorkizuna, Europar Batasun ekonomikoak, bertan emandako irizpideak, eta merkatuen egoerak baldintzatzen baitituzte.

Horiek guztiak kontutan izanik, giza-aurrikuspen sistemaren erreforma aztertzen ari den Kongresuko azpibatzaileak proposaturiko behin behineko ondorio batzuetan, finkatzen dira jada erreformaren nondik norakoak. Eta horietatik izango dira ondorengo lerroetan aztertuko ditugonak.

Pentsio Plan eta Fondoetarako

proposatzen diren erreformak ondorengoak dira:

- Epe luzerako den aurrezpen honen helburuak, eta jasotzen duten onura fiskalak, beraien likidezia eza inposatzen dute, hau da, egindako ekarpenak nahi den unean berreskuratu ezina. Likidezia eza, salbuetsi daiteke, eta aportaturiko kopuruak berreskuratu, egoera berezietan, halaber, epe luzeko langabezia edo erabateko ezintasunaren kasuan. Berreskuratzea, posible egin nahi da ere, pentsio plana ireki zenetik 15 urteko epea igaro badira.

- Beharrezkotzat jotzen da oinarri zergagarritik murriztu daitekeen portzentaia ehuneko 15etik 20ra igotzea. Aldi berean pentsio

**... fiskalitateaz gain
beste faktore batzuk ere
kontutan hartu behar
dira aurrikuspen sistema
pribatuaren eraberritzeari
buruz hitzegiterakoan,
hala nola, erakunde
ezberdinen likidezia,
finkatutako eskubide eta
kopuruaren
mugikortasuna,
ekarpenen muga
kuantitatiboak.**

planetara egin daitezkeen ekarpenen muga maximoa aldiro berrikustea aholkatzen da.

- Etorkizunean, pentsio planetatik jasotzen diren prestakuntzak laneko etekin bezala zergapetuko dira. Prestakuntzak jasotzeko orduan, kopuruak aldiro errenta moduan jaso daitezke - hilabetero, hiru hilabetero,...- edo eta kapital moduan, hau da momentu bakarrean kolpe batetik jaso daitezke. Erreformaren ondorioz, errenta moduan jasotakoak tratu onuragarriagoa izango dute kapital moduan jasotakoak baino. Hau da, azpibatzerdeko kideek nahiago dute jubilatu batek 10 milioi baldin baditu pentsio fondo batetan, hilabetero 100.000 pezeta kobratzea guztia jaso arte, 10 milioiak aldin batean kobratzea baino.

- Pentsio Fondoetara eginiko ekarpenen mugikortasuna ahalmenu nahi da, honela beraien arteko konpetentzia bultzatuz. Honela, posible izango da banketxe baten pentsio plan batean inbertitutakoa beste finantza erakunde batera eramatea.

Giza-Aurrikuspen Mutualitateak:

mutualitateetara eginiko ekarpenen eta prestakuntzen erregimen fiskalak hutsune anitz ditu. Hutsune horiek betetzeko neurriak hartu nahi dira. Horretarako, oinarri zergagarria murriztu ahal izateko babestu beharreko gertakizunak zehaztu beharko dira, ekarpenen muga maximoen finkapena, etab. zuzendu behar dira, giza-



13. irudia

AIZEGA, J.M. Espainiako gizarte segurantzaren finantzaketa arazoei aurre egiteko alternatibak (aurrikuspen sistema pribatuen erreforma). *Eleria*. 1, 1997, 81-88

... aseguruaren, pentsio planen eta mutualitateen etorkizuna, Europar Batasun ekonomikoak, bertan emandako irizpideak, eta merkatuen egoerak baldintzatzen baitituzte.

aurrikuspen mutualitateen erregimena, pentsio plan eta fondoaren erregimenarekin bat etor dadin.

Azkenik, mutualitateen tratamendu fiskala ezberdina izango da, mutualitatea Gizarte Segurantzaren ordezkia edo osagarria denaren arabera. Gizarte Segurantzaren ordezkia badu, bere tratu fiskal berdina jasoko du, aldiz, helburua Gizarte Segurantzaren osatzea baldin bada, aurrikuspen sistema pribatuen erregimena edukiko du.

Aseguru kolektiboak: aseguru hauetara egindako ekarpenen ehuneko 10a PFEZren kuotatik kentzeko portzentaia hori (10%) handitu nahi da, eta ondorioz, orain ezartzen den 50.000 pezetako muga gainditu, beti ere aseguruak aurrikuspen helburua baldin badu.

Esandakoak dira, laburki, banakako aurrezpen-aurrikuspen mailan burutu beharreko erreformarako aholkatzen diren irizpideak. Hala ere, giza-aurrikuspen sistemak ez dira beti banakoaren ekarpen pribatuekin osatzen, baizik eta giza-aurrikuspenera ere enpresa arloan ematen da. Enpresa mailan ematen den giza-aurrikuspenera azterketa berezi bat galdatzen badu ere, ez gara orain eta hemen hasiko, azterketa hori garatzen. Idazlan honen helburua kontutan izanik, egun enpresa mailako giza-aurrikuspeneraren egoera eta etorkizuneko lerro nagusiak aipatzearekin konformatuko gara.

1995/30 Legeak, enpresek zituzten pentsio-konpromezuen azalartzea inposatu zuen, horretarako 3 urte emanaz. Honen ondorioz, enpresek, langileen pentsio eskubideak bermatzeko zituzten kopuruak, enpresaren kontrolpetik atera beharko dituzte. Azalaturiko kopuruak orain arte aipatu ditugun erakundeetan gauzatu daitezke,

hots, pentsio plan eta fondoak, mutualitateak eta aseguru kolektiboak.

Enpresa barneko fondo hauek aurrikuspen sistema osagarri bat bezala ulertu ahal izateko ondorengo ukanbeharrak bete beharko dituzte:

- Langileen aurrikuspenera bideraturiko kopuruen **kanpo-kudeaketa**: orain arte kopuru horiek enpresak berak kontrolatzen zituenek, kopuru horiek enpresatik ateratzeak, kanpoko kudeaketa hau, kaudimen eta profesionaltasun nahiko daukan erakunde batek burutzea eskatzen da.

- Ekarpunen **ukiezintasuna**: aurrezpen honen helburua jubilazioa iristen denean langileari baliabide batzuk bermatzea izanik, enpresak egindako ekarpunen ukiezintasuna galdatzen da.

Aurreko bi ukanbeharrak betetzen dituen edozein eskema aurrikuspen sistema osagarritzat joko baldin bada ere, beharrezkoa da bereiztea, eskema horrek langilearentzat eskubide finkatu batzuk aitortzen ote dituen. Bereiztu beharko da beraz:

- aurrikuspen sistemak, langilearentzat eskubide trinko bat suposatzen ez duenenan, prestakuntzak jaso ahal izateko, gertakizuna emateaz gain (jubilazioa, heriotza edo ezintasuna), beste ukanbehar bat eman beharko da -langileak gertakizuna ematen den unean enpresan jarraitu beharko du-.

- behin enpresak ekarpenak egin eta gero, ekarpen horiek eskubide trinko bat suposatzen

badute, ekarpenen jabe langilea izango da, eta etorkizunean prestakuntzak jasotzeko nahikoa izango da gertakizuna jazotzea.

Sistema bakoitzak izan dezakeen tratu fiskala alde batera utzirik, aukera bikoitz honen zergaitia aurki daiteke, enpresa bakoitzak bere pertsonalaren soldata eta motibazio politika zehatzean. Honek ez du esan nahi enpresarentzat eskubide trinkoak aitortzeak ondoriorik ez duenik.

Alegia, ekarpenek ez badute langilearentzat eskubide trinkorik suposatzen, orduan ez dira enpresarentzat fiskalki gastu kengarri edo deduzibleak. Aldiz, eskubide trinko bat suposatzen dutenean gastu kengarriak izango dira. Ikuspegi fiskal batetik behintzat, kaltegarriagoa da enpresarentzat eskubide trinkorik ez aitortzea, nahiz eta aukera bat edo beste ez den soilik arrazoi fiskaletan oinarrituko.

Enpresa mailan ematen den aurrikuspenean egin beharreko erreformak, eraentza juridiko-fiskal egoki bat ezarri beharko du, non bateragarri izan behar diren langileen eskubideen babesa eta lan merkatuak izan behar duen flexibilitatea⁶.

Ondorioak

Giza-aurrikuspen sistema osagarriaren erreforma nahi eta nahiezkua da, ez soilik Gizarte Segurantzaren finantza egoerari buruz azken urteotan izandako eztabaida kontutan izanik, baita etorkizuneko arriskutik babestearren epe luzera eginiko aurrezpenak tratamendu fiskal berezia izan behar duelako ere.

Azken finean, behar hori gizartean nabaritzen da, non azkeneko datuen arabera, iadanik langileen ehuneko 15ak baduen pentsio plan osagarri bat. Hala eta guztiz ere, gure inguruko herrialdeen aldean kopuru hau motz geratzen da.

Hori dela eta, giza-aurrikuspen sistema osagarriak arrakasta izan dezan, erreformak kontutan hartu beharreko puntuak ondorengoak izango lirateke:

- Beste aurrezpen zikliko eta epe motzerakoan aurrean, zeinak errentabilitatea duten helburu nagusi, epe luzerako egiten den giza-aurrikuspen osagarria bultzatzeko helburu garbia izan beharko luke.

- Erregimen juridiko egonkor bat sortu beharko luke, eta ez fiskalitate mailan bakarrik.

- Aurrekoarekin lotuz, erreforma zatikatu batetik ihes egin beharko litzateke. Zatiketa hau gai fiskalean jarduten garenontzat hain arrunta baldin

... giza-aurrikuspen sistemak ez dira beti banakoaren ekarpen pribatuekin osatzen, baizik eta giza-aurrikuspena ere enpresa arloan ematen da.

⁶ Ikus GARCIA BECEDAS, Gabriel. "La externalización de los compromisos por pensiones en la Ley de Ordenación y Supervisión de los Seguros Privados". In: *Relaciones Laborales*, 3. zkia., 1997, 11-18 orr.

bada ere, sistema osagarriak gizartean errotzearen oztopo garbia izan daiteke.

- Hautatzen diren erakundeen arteko neutralitate fiskala.

- Eta azkenik, enpresa mailan iraganetik datozen pentsio konpromenez baliatuz, etorkizunean aurrikuspen mota hau langile eta enpresaren arteko sistema egonkor bezala bultzatzeko eraentza egoki bat onartu. Horretarako, bitarteko egoki bat bilatu beharko da, langilearen etorkizuneko babesa helburu izanik, enpresarentzat erakargarri izango dena.

Aurrikuspen sistema pribatua sistema publikoaren osagarri izan ote daitekeen, erreformaren edukiarekin asmatzeak baldintzatuko du neurri handi batetan.

